

EUSKARA-GAITASUN TITULUEN KONBALIDAZIORAKO MARKOA

Egun on eta ongi etorri gaur hona hurbildu zareten guztioi. Mahaian eserita zaudetenoi:

- Joseba Erkizia, HABEren zuzendari nagusia.
- Jon Urrutia, IVAPen zuzendaria.
- Joseba Lozano, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Herri-Administrazioetako zuzendaria.
- Juanjo Agirrezabala, Hezkuntza Saileko zuzendaria.
- Jon Etxeberria, Osakidetzako zuzendaria.
- Juan Maria Barasorda, Herrizaingo Saileko zuzendaria.

Ongi etorri eta mila esker, etorri zareten hedabideei ere. Baita gaur gurekin zareten euskaltegietako ordezkarietara ere, eskerrik asko.

Aipamen berezia egin nahi diet, eta eskerrak eman, aurkezpen honetara etorri diren beste bi pertsonari: Kultura sailburuari –Miren Azkarateri-, eta Jokin Azkueri. Bien lana erabakigarria izan da gaur hemen aurkeztuko duguna prestatzeko prozesuan: Kultura sailburuarena, Kultura sailari eta Hazienda eta Administrazio Publikoko sailari eman zitelako gaur hemen aurkeztuko dugun dekretua prestatzeko ardura nagusia. Kultura sailburuaren akuilua eta babesa ezinbestekoak izan ditugu prozesu honetan. Jokin Azkueren ekarpena ere guztiz erabakigarria izan da, zuzen-zuzenean parte hartu baitzuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako zuzendari izan zen denboran prozesu hau dinamizatzen eta koordinatzen. Eskerrik asko, beraz, bioi.

Agerraldi honetan parte hartzen dugun guztiontzat berri oso pozgarria da gaur aurkeztera goazena. Eta batez ere oso pozgarria da noizbait, urte hauetan zehar, euskara-tituluren bat lortua duten milaka eta milaka herritarrentzat, eta oraintxe bertan euskara ikasten ari direnentzat. Berri pozgarria diogu; izan ere, euskararen gaitasun egiaztagiri guztiak elkarrekin baliokidetuko dituen dekretua aurkezteko bildu gara gaur hemen. Atzoko bilkuran onartu zuen Jaurlearitzako Gobernu Kontseiluak. Sektore askoren eta milaka eta milaka herritarren eskaera betetzen du dekretu honek.

Zuzen-zuzenean bi herritar motarentzako onurak ekarriko ditu dekretuak:

- A). alde batetik, noizbait euskara tituluren bat atera duten milaka eta milaka herritarrentzat. Guztira 140.448 dira egiaztapen-sistema guztietan emanak dauden agiriak.

B). beste alde batetik, zuzenean onurak ekarriko dizkie, baita ere, oraintxe bertan euskara tituluren bat eskuratzeko ikasten ari direnei. Gogoan izan dezagun, adibidez, 2007-2008 ikasturtean HABEk homologatutako 109 euskaltegien sarean ia 40.000 ikasle ari direla euskara ikasten edo hobetzen: 40.000 horientzat guztientzat da oso berri ona gaurkoa.

Bada kontu bat berealdiko garrantzia duena. Aurten betetzen dira 25 urte HABE sortu zela. HABE da helduen euskalduntze-alfabetatzea arautzen eta zuzentzen duen erakundea, bera da helduen euskalduntzeko kurrikuluma zehazten duena, bera da euskaltegiak homologatzen dituen. Halere, HABEk emandako euskara gaitasun egiaztagiriek ez zuten orain arte administrazio publikoetarako balio ofizialik, HABEren titulua eduki arren beharrezkoa zen administrazioetako hizkuntza eskakizunen gaineko azterketa egin eta gainditzea. Gaur aurkezten dugun dekretuari esker hori ez da horrela izango: euskaltegi-tako ikasketen harian HABEk emandako lau mailetako egiaztagiriek balio ofizial osoa izango dute. Eta HABEren egiaztagiri horiek, IVAPek, Osakidetza eta Ertzaintza emandako hizkuntza eskakizunen egiaztagiriak eta Hezkuntza sailak emandako EGA titulua, guztiak Egiaztapen Sistema Bateratu batean sartu dira eta homologazioak definitu dira.

Gobernu Kontseiluak, Hazienda eta Administrazio Publikoko sailburuaren eta Kultura sailburuaren proposamena onartuz, homologazio prozesu hau martxan jartzea erabaki zuen duela ia bi urte. Batzorde bat ere eratu zuen: Hizkuntza Politikarako sailburuordea buru edo presidente izan duen batzorde honetan parte hartu dute Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak, HABEk, IVAPek eta Hezkuntza sailak, eta lan hauetan parte hartu dute, halaber, Osakidetza eta Barne Sailak.

Hizkuntza politikarako arduradun naizen aldetik, esan behar dut urrats kualitatibo garrantzitsua dela gaur hemen azaltzen dugun dekretuaren eskutik eman duguna. Lan handia eskatu duena, borondate asko bateratzeko lana eskatu duena. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak legegintzaldi honetarako hartu zituen konpromisoen artean zegoen atzo Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak onartu zuen dekretua. Helburu programatiko hura "Hizkuntza Politika aurrera begira. 2005-2009" liburuan jaso dago eta honela dio hitzez hitz:

"Alor eta esparru desberdinetan (Administrazio Orokorra, Hezkuntza, Osakidetza, ...) indarrean diren gaitasun-mailen arteko baliokidetze orokorra egitea, batean zein bestean pasatutako azterketa eta ebaluaketak errepikatu beharrik ez izateko".

Beraz, bete dugu helburua, bete dugu hartutako konpromisoa. Gaurtik aurrera euskarazko egiaztagiri guztien artean baliokidetzak izango ditugu. Arazo ugari konpontzeko balioko du horrek.

Euskarazko egiaztagiri ezberdinak sortu eta garatu dira orain arte. Baina, esan bezala, orain arte ez da egon agiri guztiak batera bilduko eta elkarrekin baliokidetuko zituen araurik.

Egoera horren ondorioz, hainbat zalantza eta egoera paradoxiko gertatu ohi da euskara gaitasuna egiaztatzeari dagokionez, batzuetan egiaztagiri bat eskuratzera behartu ere egin baita hainbat herritar, gaitasun maila bereko beste agiri bat izanda ere edo, are okerrago oraindik, gaitasun maila altuagokoa izanda ere. Eta paradoxekin jarraituz, nahiz eta HABErekin egindako akordioen bidez euskaltegietan eman administrazioetako hizkuntza eskakizunak lortzeko prestakuntza, HABEk berak emandako tituluek ez dute izan administrazioetarako balio ofizialik. Hau bukatu da, zorionez.

Lehen esan bezala, dekretuaren onuradunak asko izango dira. Adibidez, atzo bertan ireki zen HABEren aurtengo lehen deialdiko azterketetarako matrikulazio epea: 10.000 ikasletik gora aurkeztea aurreikusten dute euskaltegiek. EGA azterketa egiteko prozesuan ere une hauetan milaka batzuk ari dira. Bestalde, han-hemen administrazio organo desberdinetan zabalik daude lanpostuak betetzeko hainbat deialdi, eta horietan guztietan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak egin ohi dira. Aipa dezagun, esaterako, Osakidetza iazko Lan Eskaintzan 24.400 herritarrek egin zuela Osakidetza hizkuntza-eskakizuna eskuratzeko eskaera. Euskaltegietan matrikulaturikoak ia 40.000 ikasle dira une honetan.

Dekretu honen eragin onuragarria izango duten lehenak, beraz, euskara ikasten ari diren eta euskara egiaztatu nahi edo behar duten herritar horiek dira. Baina ez horiek bakarrik. Bada kontu bat oso garrantzitsua, milaka herritarrentzako oso onuragarri izango dena: atzeraeragina izango du dekretuak. Beraz, aurreko urtetan euskara agiriaren bat eskuratu duten milaka eta milaka herritar horiek ere probetxu askoz zabalagoa atera ahal izango diote lortua duten tituluari.

Orain arte emanda dauden egiaztagirien kopuruak:

Agiria	Agiridunak guztira	Hasitako urtea
EGA - HEZKUNTZA SAILA	81.822	1982
HAEE-IVAP	40.585	1987
HABE	8.950	2004
OSAKIDETZA	6.896	2004

ERTZAINZA	2.195	1998
Guztira	140.448	

Euskarako egiaztigiri guztien baliokidetzaz ez da nola edo hala egin gainera. Zorroztasun tekniko handiz jokatu da konbalidazio taula zehazteko lanetan. Egiaztigiri sistemak ez dira elkarren artean zuzenean alderatu, baizik eta *Hizkuntzen Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaketarako Europako Erreferentzia Markoak* ezartzen dituen mailekin parekatu da haietako bakoitza, banan-banan. *Europako Erreferentzia Markoa* izan dugu, beraz, oinarri eta biderakusle. Hau da, homologazioa aurkitu da Europako irizpideekin.

Konbalidazio taulara iristeko beharrezkoa zen oinarri zientifiko eta zehatzaz jardutea. Horregatik, prozesu hau dena gidatu duen adituen talde bat osatu genuen. Hiru adituok hauek izan dira:

- Neus Figueras. Hezkuntza Zientzietako doktorea. Kataluniako Hizkuntza Eskola Ofizialen egiaztatze-proben arduraduna eta katalanaren egiaztigirien konbalidazio markoaren arduradunetarikoa.
- Iñaki Pikabea. Hezkuntza Zientzietako doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Hizkuntzaren didaktikan aditua.
- Jose Francisco Lukas. Hezkuntza Zientzietako doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Hizkuntzaren didaktikan aditua.

Aditu taldeak erabili duen prozedura izan da Europako Kontseiluak gomendatzen duena, hain zuzen ere *Hizkuntza-azterketak Europako Markoarekin uztartzeko Eskuliburua*-n jasotzen dena.

Horrela, egiaztapen sistema bakoitzeko dokumentu eta material ugari aztertu dituzte. Besteak beste, azterketen diseinua eta deskribapen orokorra, probak egiteko eta kudeatzeko sistema, zuzenketa eta puntuazioa, datuen analisia eta ondoren berrikusteko prozedura ikertu dituzte 45 parametroren bitartez.

Azterlan horren barruan, halaber, egiaztapen sistema bakoitzeko azterketen lagin errealak baloratu dituzte, Europako Markoarekin alderatuta. Lan hori egiteko 30 epaileren lankidetzaz izan dute: 30 epaile horiek ebaluaketan eta azterketen zuzenketa aritutako irakasleak ziren. Guztira 125 azterketa-lagin erreal aztertu eta konparatu dituzte. Ondorioz, egiaztapen-sistema desberdinen maila bakoitza Europako Markoarekin erkatu dute.

Azpimarratzekoa da Europako ebaluazio irizpide estandarrak jarraituz egin dela prozesua, horrek dituen abantaila guztiekin: nazioarteko estandarretan

oinarritua egotea, gerora sor daitekeen edozein egiaztagiri marko bateratu honetara biltzeko erraztasuna, eta abar.

Hauek dira dekretuak ontzat eman dituen baliokidetzak:

Europako Erreferentzia Markoa	IVAP	HABE	OSAKIDETZA	ERTZAINZA	HEZKUNTZA SAILA
B1	1. HE	1. maila	1. HE		
B2	2. HE	2. maila	2. HE	1. HE	
C1	3. HE	3. maila	3. HE	2. HE	EGA
C2	4. HE	4. maila	4. HE		

Taulan ageri ez diren gainerako euskara egiaztagiriak (Irakasleen 1. eta 2. Hizkuntza-Eskakizunak, Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako tituluak) Hezkuntza Sailak kudeatzen dituenak dira, eta dekretuan ezarrita geratu da sei hilabeteko epean konbalidazio koadro bakar honetara bilduko direla egiaztagiri horiek ere. Aurreratu dezakegu adituen taldeak jadanik zehaztu duela egiaztagiri horiei dagokien proposamena ere.

Azkenik, dekretuak aurreikusten du, baita ere, egiaztagirien baliokidetze marko bateratuaren Jarraipen Batzordea eratzea inplikaturako sail guztien artean. Horren helburua izango da egiaztapen sistema guztiak aurrerantzean ere Europako Erreferentzia Markora egokituta mantentzea eta sailen artean koordinazio tekniko egokiarekin jokatzeko.

Hil honen amaierarako indarrean egongo da dekretua, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu orduko.

Erakundeek eraginkortasunez jokatu dugu kasu honetan, emaitza onuragarriak jasoko dituzte herritarrek, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta nik neuk, lan hau aurrera eraman duen batzordearen presidente naizenez eta Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politikaren ardura dudanez, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu hau guztiau posible egiten lagundu diguten erakunde guztiei, Jaurlaritzako sail afektatuei, hemen mahaikide ditudan sail eta pertsona guztiei.

Dekretu honekin gauzak erraztu ditugu jendea euskarara hurbiltzeko. Euskaraz hitz egin edo bizi nahi duen herritarrari, zailtasunak jarri beharrean, bide

guztiak zabaltzeko ahaleginak egiten jarraitu behar dugu erakunde guztiok. Gure betebeharra da hori. Eta horretan jarraituko dugu, eraginkortasuna bilatuz, euskararen aldeko sustapenaren mesedetan. Helburua ez delako herritar guztiek euskara bikain jakitea, ahalik eta gehienek euskara ahalik eta gehien erabiltzea baizik. Eta euskara trabarekin ez baizik eta erraztasunarekin identifikatzea.

Gure helburua euskararen erabilera bultzatzea da: horixe da helburu nagusia. Ez dugu xede bihurtu nahi azterketak egitea edo tituluak lortzea. Ez dugu nahi jendeak euskara batez ere identifikatzea azterketa orok sortu ohi duen deserosotasunarekin; horregatik, egiaztagiriak eskuratzeko azterketak eta prozesuak sinpletu ditugu. Gure obligazioa da bidea leuntzea, ahalik eta herritar gehienek euskara gustura eta eroso erabil dezaten eguneroko bizimoduan. Dekretu hau urrats handia da horretarako.

Bilbo, 2008ko apirilak 9.

Patxi Baztarrika

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea